



**Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza**

**DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN BABES  
PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN  
KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-  
ADMINISTRATIBOEN ORRIA.**



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

<u>I. XEDAPEN OROKORRAK</u> .....	3
1. ARTIKULUA. KONTRATUAREN XEDEA.....	3
2. ARTIKULUA. KONTRATUAREN PREZIOA.....	8
3. ARTIKULUA. ZERBITZUAREN FINANTZAKETA.....	12
4. ARTIKULUA. ORDAINTZEKO MODUA.....	12
5. ARTIKULUA. KONTRATUA INTERPRETATZEA.....	13
6. ARTIKULUA. JURISDIKZIOA.....	13
7. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA.....	13
II. DEIALDIA ETA ESLEIPENA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK.....	14
8. ARTIKULUA. ESLEIPEN PROZEDURA ETA MODUA. KONTRATUAREN IZAERA.....	14
9. ARTIKULUA. LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:.....	15
10. ARTIKULUA. PROPOSAMENAK ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.....	17
11. ARTIKULUA. KONTRATAZIO ORGANOA. EBALUAZIO BATZORDEA.....	21
12. ARTIKULUA. PROPOSAMENAK IREKITZEA.....	21
13. ARTIKULUA. KONTRATUA ESLEITZEA.....	22
14. ARTIKULUA. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.....	24
15. ARTIKULUA. KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEKIZUNAK.....	25
16. ARTIKULUA. KONTRATUA FORMALIZATZEA.....	25
<u>III. KONTRATUA GAUZATZEA</u> .....	26
17. ARTIKULUA. KONTRATUAREN ARDURADUNA.....	26
18. ARTIKULUA. KONTRATUAREN IRAUPENA.....	26
19. ARTIKULUA. EPEAK BETETZEA ETA ATZERAPENAGATIKO ZIGORRAK.....	27
20. ARTIKULUA. KONTRATUA GAUZATZEA.....	28
21. ARTIKULUA. PREZIOAK BERRIKUSTEA.....	29
22. ARTIKULUA. KONTRATUKO ALDAKETAK.....	29
23. ARTIKULUA. KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA.....	30
24. ARTIKULUA. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK, GIZARTE BETEBEHARRAK ETA BETEBEHAR EKONOMIKOAK.....	30
25. ARTIKULUA. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.....	30
26. ARTIKULUA. BERMEA ITZULTZEA.....	31
I. ERANSKINA.....	33
<u>BEHIN BETIKO ABAL EREDUA</u> .....	33
II. ERANSKINA.....	34
<u>PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA</u> .....	34
ADIERAZI DU.....	34
III. ERANSKINA.....	36
<u>PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA</u> .....	36
<u>ALDI BATERAKO ENPRESARIEN ELKARTEEN KASUAN</u> .....	36
IV. ERANSKINA.....	39
<u>JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA AUKERATZEA</u> .....	39




## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

### I. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. ARTIKULUA. KONTRATUAREN XEDEA

1. Lizitazioaren xedea da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak alokairuan laga dituen bere jabetzako eraikin hauen garbiketa-zerbitzua kontratatzea:

- NEMESIO ETXANIZ KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 1 eta 3
- LOIOLAKO ERRIBERA PASEALEK UKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 20
- MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 3, 5, 7, 9 eta 11
- MORLANS PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 3tik 11ra
- MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 2, 4, 6, 8 eta 10
- MORLANS PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 2tik 10era
- MARAÑÓN DOKTOREAREN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 22
- MARAÑÓN DOKTOREAREN PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 22
- ARGEL PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 2
- ARGEL PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 2
- IGNACIO UGARTE KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1
- MONS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
- IGNACIO UGARTE PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 1 – MONS 5
- BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 4 eta 6
- CASARES PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 9 eta 11
- BERRA-BEHEA KALEKO GARAJE KOMUNITATEA, 4-6 ETA CASARES 9-11
- BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 5, 7, 9, 11, 13 eta 15
- HARROBIETAKO PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 7, 8 eta 9
- AITA ORKOLAGA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 14 eta 16
- ANDER ARZELUS LUZEAR PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 1 eta 2
- IRASMOENE KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 1
- EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 1etik 7ra
- EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEAK, 1etik 7ra
- EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 8tik 14ra
- EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEAK, 8tik 14ra




## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

- ORIAMENDI PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 18 eta 20
- ORIAMENDI PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 46
- MONS PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 89, 91, 93 eta 5
- HIRU DAMATXOEN PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 9 eta 10
- HIRU DAMATXOEN PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEAK, 9 eta 10
- LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 1, 2, 3, 4, 5 eta 6
- LASARTE PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 1etik 6ra
- BENTA BERRI PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
- PINU BIDEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 27
- PINU BIDEKO GARAJE KOMUNITATEA, 27
- SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 13, 15, 17 eta 19
- SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEAK, 13, 15, 17 eta 19
- KATALINA ELEIZEGI KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 19, 21, 23 eta 25
- KATALINA ELEIZEGI KALEKO GARAJE KOMUNITATEAK, 19, 21, 23 eta 25
- M<sup>a</sup> DOLORES GOIA PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 1etik 12ra

2. Zeregin hauek barne hartzen dira eskaini beharreko zerbitzuaren barruan: eraikin bakoitzaren ataria eta sarrerak, garajeak/trastelekuak kokatzen diren sotoko solairuak eta eraikin bakoitzaren zona komunak garbitzea.
3. Esleipena egiteko, jarraian adierazitako loteetan bereizita dago aldez aurretik jada zehaztu den zerbitzua eta lote baterako, bat baino gehiagorako edo guztietarako eskaintzak aurkez daitezke:

### 1. LOTEA:

BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 4
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
CASARES PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
CASARES PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 11
BERRA-BEHEA KALEKO GARAJE KOMUNITATEA, 4 eta 6 ETA CASARES 9-11
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 7
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 11




## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 13
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 15
HARROBIETA PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 7
HARROBIETA PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 8
HARROBIETA PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 13
SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 15
SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 17
SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 19
SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 13-19

### 2. LOTEA:

EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 3
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 4
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 7
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEAK, 1etik 7ra
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 8
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 10
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 11
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 12
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 13
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 14
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO GARAJEAK, 8tik 14ra
ORIAMENDI PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 18
ORIAMENDI PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 20
ANDOAIN KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 46

### 3. LOTEA:



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza


MARAÑÓN DOKTOREAREN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 22
MARAÑÓN DOKTOREAREN PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 22
PINU BIDEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 27
PINU BIDEKO GARAJE KOMUNITATEA, 27

### 4. LOTEA:

NEMESIO ETXANIZ KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 1
NEMESIO ETXANIZ KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 3
LOIOLAKO ERRIBERA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 20
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 3
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 7
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 11
MORLANS PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA 3tik 11ra
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 4
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 8
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 10
MORLANS PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA 2tik 10era
ANDER ARZELUS LUZEAR PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK 1
ANDER ARZELUS LUZEAR PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
IRASMOENE KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1

### 5. LOTEA:

IGNACIO UGARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1
MONS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
IGNACIO UGARTE PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 1 – MONS 5
ARGEL PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
ARGEL PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 2
Mª DOLORES GOIA PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 1etik 12ra



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza


### 6. LOTEA:

LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 3
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 4
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
LASARTE PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 1etik 6ra:
BENTA BERRI PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
AITA ORKOLAGA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 14
AITA ORKOLAGA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 16

### 7. LOTEA:

MONS PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 89, 91, 93 eta 95
KATALINA ELEIZEGI KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 19
KATALINA ELEIZEGI KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 21
KATALINA ELEIZEGI KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 23
KATALINA ELEIZEGI KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 25
KATALINA ELEIZEGI KALEKO GARAJE KOMUNITATEA, 19, 21, 23 eta 25
HIRU DAMATXOEN PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
HIRU DAMATXOEN PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 10
HIRU DAMATXOEN PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 9-10

4. Orri honetan barne hartutako garbitzeko higiezin zerrendak ez dira zerrenda itxiak, izan ere, behin kontratua esleitu eta gero, zerbitzu gehiago sar daitezke, kasuan-kasuan kontratu-aldaketa egin ondoren, baldin eta hitzartutako garbiketa-kontratuak iraungitzeagatik erakundeak kontratistari eskatu behar badizkio. Halaber, gaur egun oraindik eraiki gabe dauden baina



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

kontratuak irauten duen bitartean gauzatuko diren eta garbitzeko beharra edukiko duten eraikinak sar daitezke, hala badagokio.

5. Kontratuaren xedearen barruan daude: behar diren garbiketa-produktuen hornikuntza, hondakinak kentzea eta Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian xedatutakoaren arabera egin beharreko zerbitzu guztiak.

### 2. ARTIKULUA. KONTRATUAREN PREZIOA


- 1 Kontratu honen modalitatea kontuan hartuta, ez da kontratuaren guztizko prezioa zehaztu. Prezioa zehazteko, jarraian adierazitako arauak jarraituko dira:

Hauek dira lote bakoitzari dagozkion prezioak:

**1. LOTEA: 2. 599,41 + 545,88 (% 21 BEZa) = 3.145,29 €/hilean**

BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 4
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
CASARES PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
CASARES PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 11
BERRA-BEHEA KALEKO GARAJE KOMUNITATEA, 4 eta 6 ETA CASARES 9-11
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 7
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 11
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 13
BERRA-BEHEA KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 15
HARROBIETA PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 7
HARROBIETA PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 8
HARROBIETA PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 13
SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 15





## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 17
SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEAK, 19
SERAPIO MUGICA PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 13-19


**2. LOTEA: 2.142,14 + 449,85 (% 21 BEZa) = 2.591,99 €/hilean**

EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 3
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 4
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 7
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEAK, 1etik 7ra
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 8
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 10
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 11
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 12
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 13
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 14
EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN PASEALEKUKO GARAJEAK, 8tik 14ra
ORIAMENDI PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 18
ORIAMENDI PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 20
ANDOAIN KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 46

**3. LOTEA: 895,70 + 188,10 (% 21 BEZa) = 1.083,80 €hilean**

MARAÑÓN DOKTOREAREN PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 22
MARAÑÓN DOKTOREAREN PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 22
PINU BIDEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 27
PINU BIDEKO GARAJE KOMUNITATEA, 27

**4. LOTEA: 2.709,66 + 569,03 (% 21 BEZa) = 3.278,69 €/hilean**



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza


NEMESIO ETXANIZ KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1
NEMESIO ETXANIZ KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 3
LOIOLAKO ERRIBERA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 20
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 3
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 7
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 11
MORLANS PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA 3tik 11ra
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 4
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 8
MORLANS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 10
MORLANS PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA 2tik 10era
ANDER ARZELUS LUZEAR PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1
ANDER ARZELUS LUZEAR PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
IRASMOENE KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1

### 5. LOTEA: 740,19+155,44 (% 21 BEZa) = 895,63 €/hilean

IGNACIO UGARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1
MONS PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
IGNACIO UGARTE PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 1 – MONS 5
ARGEL KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
ARGEL KALEKO GARAJE KOMUNITATEA, 2
Mª DOLORES GOIA PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 1etik 12ra

### 6. LOTEA: 1.193,77 + 250,69 (% 21 BEZa) = 1.444,46 €/hilean

LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 1
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 2
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 3
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 4
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 5
LASARTE PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6
LASARTE PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 1etik 6ra:
BENTA BERRI PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 6



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

AITA ORKOLAGA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 14
AITA ORKOLAGA PASEALEKUKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 16

### 7. LOTEA: 725,52+152,36 (% 21 BEZa) = 877,88 €/hilan

MONS PASEALEKUKO GARAJE KOMUNITATEA, 89, 91, 93 eta 95
KATALINA ELEIZEGI KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 19
KATALINA ELEIZEGI KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 21
KATALINA ELEIZEGI KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 23
KATALINA ELEIZEGI KALEKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 25
KATALINA ELEIZEGI KALEKO GARAJE KOMUNITATEA, 19, 21, 23 eta 25
HIRU DAMATXOEN PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 9
HIRU DAMATXOEN PLAZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITATEA, 10
HIRU DAMATXOEN PLAZAKO GARAJE KOMUNITATEA, 9-10


Kontratuaren balio zenbatetsia, hasiera batean kuantifikatutako lanak eta 18. artikuluan aurreikusitako luzapenak barne hartuta, **639.251,12 €** da (528.306,72 € + % 21 BEZa, 110.944,40 €). Prezio horri % 20 gehitu behar zaio, kontratuan izan daitezkeen aldaketengatik, hortaz, 767.101,34 €-koa (633.968,06 + % 21 BEZa) da zenbatetia.

2. Prezio hauek aplikatuko dira, gehienez ere, hitzartutako garbiketa-kontratuak amaitzeagatik, edo eraikin gehiagotara zabaltzeagatik, Erakundeak kontratistari eskatzen dizkion ondorengo eraikinen garbiketa-lanengatik:

- 18 €/ ordua, BEZa kanpo, etxebizitza-komunitateak garbitzeagatik.
- 20 €/ordua, BEZa kanpo, garajeak garbitzeagatik.

Bi kasuetan, lizitatuzaileek prezio horiek hobe ditzakete.

3. Kontratuaren prezioa berau esleitzean eta formalizatzean lortzen dena izango da. Edozein kasutan, ez da gaitutako lizitazioaren aurrekontua eta prezio itxia izango da. Eurotan adieraziko da,



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

dagokion BEZarekin, eta kontratistak kontratuaren eta Orri honen ondoriozko betebeharrak guztiak onartzen dituela eta bere gain hartzen dituela ulertuko da.


4. Kontratuaren prezioan balorazio-faktore guztiak barne hartuta daudela ulertuko da, baita ordejarriak, joan-etorriak, langileen gastuak eta abar ere. , Halaber, kontratu-dokumentuen eta indarrean dagoen legeriaren arabera alde esleipendunaren kontura den edozein gastu barne hartu dela ulertuko da.

### **3. ARTIKULUA. ZERBITZUAREN FINANTZAKETA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurtengo aurrekontuaren kargura aurreikusi da finantzaketa. Era berean, aurrekontu-arloan eskumena duen organoak konpromisoa hartu du, eragingo diren etorkizuneko ekitaldien aurrekontuetan behar diren kredituak erreserbatzeko.

### **4. ARTIKULUA. ORDAINTZEKO MODUA**

1. Esleipendunak eskubidea du kontratuaren arabera zinez gauzatu duen garbiketa-zerbitzuagatik ordaintzeko, hitzartutako prezioaren arabera.
2. Hilean behin luzatuko da etxebizitza-komunitateen eta/edo garaje/trastelekuen komunitateen garbiketa-zerbitzuengatik faktura.
3. Esleipena loteka egiten bada ere, faktura bat luzatuko da garbiketa-zerbitzua jaso duen erkidego bakoitzagatik eta kasuan-kasuan erkidegoaren izenean.
4. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak onartu eta gero ordainduko dira fakturak. Erakundeak izendatutako zuzendari-gerenteak edo teknikariak sinatuko ditu fakturak, eta gehienez ere hogeita hamar eguneko epean ordainduko dira, fakturak luzatzen diren egunetik hasita.



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza


### **5. ARTIKULUA. KONTRATUA INTERPRETATZEA**

1. Kontratazio-organoak du kontratua eta Orri hau interpretatzeko eskumena eta berak du eskumena, halaber, kontratua indarrean dagoen denboran bere interpretazioari, aldaketei, eraginari eta iraungipenari buruz izan daitezkeen gorabeherak konpontzeko, betiere Legean ezarritako mugak eta baldintzak errespetatuta.
2. Kontratazio-organoak bere eskumena gauzatuz hartzen dituen akordioak berehalakoan betearaztekoak izango dira.
3. Kontratuak irauten duen bitartean desadostasunik badago lanak egiteko moduari buruz, edo kontratua interpretatzeko moduari buruz, edo kontratuaren edozein alderdi teknikori zein ekonomikori buruz, kontratistak onartu egingo du Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak hartzen duen erabaki teknikoa.

### **6. ARTIKULUA. JURISDIKZIOA**

1. Kontratua prestatzean eta esleitzean izan daitezkeen gatazkak konpontzeko eskuduntza duen jurisdikzioa administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da, baita kontratazio-errekurtso bereziak ebazteko ere. Jurisdikzio zibilak du eskuduntza, ordea, kontratua gauzatzean izan daitezkeen gatazkak konpontzeko.
2. Lizitzaileek uko egiten diote dagokien foruari, hala badagokio, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoari dagozkion Epaitegiek eta Auzitegiek erabakitakoa onartuko dute.

### **7. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA**




## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

1. Enpresa esleipendunak eta bere langileek kontratua gauzatzegatik ezagututako datu pertsonalen sekretu profesionala gordetzeko betebeharra dute, eta kontratua amaituta ere, betebeharrak hori indarrean egongo da, abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikulua araberak.
2. Enpresa esleipendunaren betebeharra da bere langileei prestakuntza eta informazioa ematea, zerbitzua eskaintzean egingo dituzten lanetan datuen babesarekin lotuta bete beharreko betebeharrak buruz, bereziki sekretua gordetzeko eginbeharrak buruz. Halaber, enpresa esleipenduna izango da erantzulea bere langileek adierazitakoa ez betetzeagatik eragin daitezkeen lege-urraketen aurrean.
3. Kontratua betetzeko eskaintzen diren zerbitzuak garatzean esleipendunak eta bere langileek zorrotz beteko dituzte kasuan-kasuan dagokien lana garatzen duten tokiko segurtasun-dokumentuak.
4. Esleitutako kontratuaren baitan datu pertsonalen tratamendua egin behar bada, abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa errespetatuko da, baita berak garatzen duen araudia ere, betiere SPKLren Hamahirugarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoaren arabera.

## II. DEIALDIA ETA ESLEIPENA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK

### 8. ARTIKULUA. ESLEIPEN PROZEDURA ETA MODUA. KONTRATUAREN IZAERA

1. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 190. artikuluan xedatutakoa betez eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren kontrataziorako barne-jarraibideak kontuan hartuta, kontratua prozedura ireki bidez esleitu da.




## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

2. Orri honen arabera osatzen den kontratua, kontratu pribatua izango da. Zerbitzu-kontratutzat sailkatu da eta Orri honetan barne hartutako artikulua beteko dira, eta bertan aurreikusten ez denari dagokionez, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duenean (SPKLTB aurrerantzean) adierazitakoa, baita Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean adierazitakoa eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan adierazitakoa ere.
3. Kontratua prestatzeko eta esleitzeko Baldintza Ekonomiko-Administratiboan Klausulen Orri honetan ezarritakoa beteko da, bai eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren kontratazioan jarraitzen dituen barne-jarraibideak ere. Eta aipatutako bi dokumentu horietan aurreikusten ez diren kasuetan, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 157., 158., 159. eta 190. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio, kasuan-kasuan Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikotik at dagoela eta, egin beharreko egokitzapenak eginda.
4. Kontratuaren ondorioei eta suntsiarazpenari dagokienez, Klausula Ekonomiko-Administratiboan Orri honetan adierazitakoa jarraituko da, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren kontratazioarako barne-jarraibideetan aurreikusi ez diren kasuetan, SPKLTBk esleitzeko boterea eduki eta herri-administrazioak ez diren sektore publikoko erakundeek egindako araupetze harmonizatuko kontratuarako ezarritako arauak jarraituko dira, baldin eta aipatutako Legean, APKLAOn eta, modu osagarrian, aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauetan aurreikusitakoarekin kontraesanean ez badaude.
5. Araupetze harmonizatuko kontratuen kasuan, SPKLren 40. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako berrikuspen-araubide berezia aplikatuko da.

## **9. ARTIKULUA. LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:**

### **9.1. GAITASUN BALDINTZAK**



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratazioak egiteko eskumena dute pertsona naturalek eta juridikoek, espainolek zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmena badute, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala ziurtatzen badute eta sektore publikoarekin kontratazioak egiteko debekurik ez badute (SPKLTBren 60. artikuluan zerrendatu dira debekatutako egoerak).
2. Kontratatzeko debekurik ez dagoela frogatzeko, aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

### 9.2. GAITASUNA

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izango dira, baldin eta kasuan-kasuan estatutuen edo sorrera-arauen arabera, dituzten prestazioak dagokien helburu, xede edo jarduera-esparruekin bat badatoz.

- *Jarduteko gaitasuna ziurtatzea.*


Pertsona juridikoak diren enpresariak jarduteko duten gaitasuna ziurtatzeko, sorrera-eskritura edo -dokumentua, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu behar dute (bertan adieraziko dira kasuan-kasuan jarduera arautzen duten arauak), eta behar den bezala izena emanda egon behar dute Erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.

### 9.3. KAUDIMEN EKONOMIKO, FINANTZARIO ETA TEKNIKOKO BALDINTZAK

SPKLTBren 62. artikuluan xedatzen denaren arabera, enpresariak kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen profesional zein teknikoari dagokienez, honako gutxieneko baldintza hauek betetzen dituztela ziurtatu behar dute:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa ziurtatzeko, kaudimen-erakunde finantzarioen aitortpena edo adierazpena aurkeztuko da.





## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

Kaudimen tekniko edo profesionalari dagokionez, “Zerbitzu Orokorrak, garbiketa-zerbitzuak orokorrean” sailkapena duela ziurtatuko da, edo, hala badagokio, honela ziurtatuko da:

- a) Zerbitzua eskaintzera bideratuko diren langileak zehaztuko dira, baita bakoitzak kontratua gauzatzeko igaroko duen denbora ere.
- b) Azken hiru urteetan egindako garbiketa-zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda bat osatuko da. Zenbatekoak, datak eta bezero publikoak eta pribatuak adieraziko dira bertan. Ziurtatzen diren zerbitzuak edo lanak kontratuaren xedearen antzekoak izango dira, hau da, gutxienez lizitatutako lote kopurua adina higiezin edo higiezin gehiagoren garbiketa egingo da.


Hori horrela dela ziurtatzeko, etxebizitza-komunitatearen idazkariaren ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiria etxebizitza-komunitatearen lehendakariak edo, hala badagokio, garbiketa-zerbitzua jaso duten erakundeko ordezkariak edo pertsonak sinatuta egongo da.

Aipatutako kaudimen-irizpideak betetzen ez badira, kontratazio-mahaiak prozedura honetatik at utziko du lizitatuazalea.

SPKLTBren 63. artikuluan xedatutakoa betez, enpresariak beste erakunde batzuen kaudimena eta bitartekoak erabili ahal izango ditu kaudimena ziurtatzeko. Xede horretarako, bitartekoen jabe den enpresarekin sinatutako akordioa sartu beharko da B gutun-azalean.

### **10. ARTIKULUA. PROPOSAMENAK ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**


1. Lizitazio honen espedientea Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren bulegoetan egongo da (Mandasko Dukearen pasealekua 12, behea, Donostia-San Sebastián), nahi duenak aztertzeko, asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

Leku berean, eta astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara, halaber, proposamenak aurkez daitezke; lizitazio honen iragarkia Europako Batzordeari bidaltzen zaionetik berrogeita zazpi eguneko epea utziko da horretarako. Proposamenak hiru gutun-azal itxitan aurkeztuko dira (A, B eta C), derrigorrezko dokumentazioarekin batera, eta lizitatzaillearen izena edo helbide soziala adieraziko dira guztietan, eta kanpoaldean lizitazioari dagokion kontratuaren izena adieraziko da: **“Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren eraikinak garbitzeko kontratu baten esleipenean parte hartzeko proposamena”**, eta enpresaren edo profesionalaren izena eta proposamena sinatzen duenaren izena eta abizenak adieraziko dira. Gutun-azalean dokumentuen zerrenda bat sartuko da, 9. artikuluan zehaztutakoaren arabera zenbakitua, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak jakinarazpenak edo eskaerak bidaltzeko harremanetarako pertsona bat, telefono-zenbakia eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa adieraziko dira, halaber.

2. Data igarota aurkezten diren proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta Correos-en epea amaitu aurretik aurkeztu. Salbuespena izango da eskaintza bidaltzeko data eta proposamena postaz bidaltzeko data bat etortzen diren kasuak (kasu horretan, posta elektronikoa, telex edo telegrama bidez justifikatu beharko da). Edozein modutan, zehaztutako datatik hamar egun natural igarotzean ez bada justifikaziorik jasotzen, eskaintza baztertu egingo da.
3. Kontratuzko proposamenak edo eskaintzak eskuz aurkezten badira Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren bulegoetan (Mandasko dukearen pasealekua 12, behea, 20012 Donostia / San Sebastián ), proposamen bakoitza jaso izanaren ziurtagiri bat emango da, eta bertan adieraziko dira lizitatzaillearen izena, lizitazioaren obraren izena eta proposamena aurkezteko eguna eta ordua. Proposamena aurkeztu eta gero, ezin izango da atzera bota eta lizitatzailleak proposamena gordetzeko betebeharra izango du, proposamenak irekitzen diren egunetik hasita hiru hilabeteko epean.
4. Lizitatzaille bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Proposamena bakarka egin bada edo aldi baterako elkarte bezala egin bada, ezingo da aldi baterako elkarte izateko beste proposamenik hartu. Aipatutako arauak urratuz gero, lizitatzailleak sinatutako proposamen guztiak baztertuko dira.



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

- Proposamenak aurkeztean lizitatuzaileak orri honetako eta gainerako kontratuzko agirietako klausulak baldintzarik gabe onartzen dituela ulertuko da; halaber, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta obra kontratatzeke eskatzen diren baldintza eta betekizun guztiak betetzen direla ziurtatzen duen erantzukizun-aitorpena aurkeztuko da.


### A GUTUN-AZALA. KONTRATATZEKO GAITASUNA, honako eduki honekin:

**Lehenengoa.** Bere izenean zein ahaldun bezala proposamena aurkezten duen pertsonaren **Nortasun Agiri Nazionala**.

Bere izenean jarduten ez duenean edo sozietatea edo pertsona juridikoa denean, kasuan-kasuan dagokion pertsonaren edo erakundearen izenean jarduteko ahalmen nahikoa aitortzen duen **ahalordetze-agiria** aurkeztu behar da. Kasu horretan, ahalordetze-boterea Merkataritza Erregistroan behar den bezala inskribatuta egongo da eta aipatutako erregistroko ziurtapena aurkeztu beharko da, indarrean dagoela ziurtatzeko.

**Bigarrena.** Lizitatuzailea pertsona juridiko bat denean, **eratze- edo aldaketa-eskritura**, hala badagokio; Merkataritza Erregistroan behar den bezala inskribatuta egongo da, identifikazio fiskaleko zenbakiarekin batera, kasuan-kasuan ezar daitekeen merkataritza-legeriak horrela eskatzen badu. Agiri guztiak behar den bezala konpultsatuta aurkeztuko dira. Horrela ez bada, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko eskritura edo eratze-dokumentua, estatutuak zein eratze-egintzaren agiria, aurkeztuko dira. Agiri horietan adieraziko dira jarduera arautzen duten arauak, eta jarduerari dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

**Hirugarrena.** **Aldi Baterako Enpresa Elkarteen** kasuan, lehiatzen diren aldeen izenak eta ezaugarriak adierazi beharko dira, bai eta bakoitzaren partaidetza ere, eta ordezkariak edo ahaldun bakarra izendatuko dira, kontratuko eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko ahalmen nahikoa edukiko duena; eta, esleipendun suertatuz gero, aldi baterako elkarte bihurtzeko konpromisoaren agiria aurkeztuko da.



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

- Laugarrena.** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatutako **kontratatzeko debekuetan** nahastuta ez egotea. Gainera, berariaz ziurtatu beharko da indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela.
- Bosgarrena.** Baldintzen Orri honen 9.3. artikuluan adierazitako kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional edo teknikoaren baldintzak betetzen direla ziurtatzen duen dokumentazioa.
- Seigarrena.** IV. eranskin gisa barne hartutako dokumentua, jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bitartekoari buruzkoa, behar den bezala betea.


### **B GUTUN-AZALA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA.**

Gutun-azal honetan lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatutako proposamen bakar bat sartuko da. Orri honetan adierazitako ereduak (II. eta III. eranskinak) jarraituko dira proposamenak osatzeko eta prezioan balorazio-faktore guztiak barne hartuko dira, baita ordejarriak, joan-etorriak, langileen gastuak eta kontratu-dokumentuen eta indarrean dagoen legeriaren arabera, esleipendunaren kontura den beste edozein gastu ere. Lizitatzailleak aurkeztutako eskaintzan barne hartuta egongo dira indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoak diren zerga guztiak, BEZa izan ezik. BEZa aparteko zenbateko batean adieraziko da.

### **C GUTUN-AZALA. PROPOSAMEN TEKNIKO**

Dokumentazio hau sartuko da gutun-azal honetan:

Aldaketen edo hobekuntzen proposamen zehatza, 14. artikuluan ezarritako terminoetan, hala badagokio.




## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

### **11. ARTIKULUA. KONTRATAZIO ORGANOA. EBALUAZIO BATZORDEA.**

1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseilua da kontratazio-organoa lizitazio honetan.
2. Donostiako Udaleko kontratazio-mahaiak ebaluatuko ditu eskaintzak. Aipatutako mahaia 2010eko urtarrilaren 29ko Tokiko Gobernu Batzordean hartutako akordio bidez osatu zen, eta bere osaera aldatu zen, 2011ko uztailaren 22ko Tokiko Gobernu Batzordean hartutako akordio bidez.

### **12. ARTIKULUA. PROPOSAMENAK IREKITZEA**

1. Proposamenak jasotzeko epea amaitzean, kontratazio-mahaia udaletxean bilduko da eta "A" KONTRATATZEKO GAITASUNA izeneko gutun-azaletako edukia aztertu eta lizitatzailerak aurkeztutako dokumentuak denboran eta forman sailkatuko ditu.
2. Eskatzen den agirietako bat aurkezten ez bada edo desberdin aurkezten bada, proposamena behin betiko baztertuko da. Hala ere, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera hiru egun balioduneko epea utziko zaio lizitatzailerari, aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akats materialak edo gorabeherak konpontzeko. Beharrezko kopuruagatik behin-behineko bermerik aurkeztu ez bada, baztertu egingo da behin betirako aurkeztutako proposamena. Kontratazio-mahaiak aztertu eta onartu dituen proposamenak jakinaraziko dizkie lizitatzailerari, ekintza publiko berean.
3. Guztiak behar den bezala osatu badira eta zuzenak badira, "C" PROPOSAMEN TEKNIKOA izeneko gutun-azalak irekiko dira. Kasu horretan, eskaintzei dagokien balorazio-txostena landuko da eta dokumentu bidez jasoko da dena.
4. Ondoren, "B" PROPOSAMEN EKONOMIKOA gutun-azalak irekiko dira, dagokien balorazioa egiteko.



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza


5. Ez dira onartuko kontraesanak, ez-egiteak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak, kontratazio-mahaiak funtsezkotzat jotzen dituen alderdiak garbi ezagutzea eragozten bada, eta ez dira onartuko aztertu eta onartu den dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, lizitazio mota gainditzen dutenak edo ezarritako proposamen-ereduarekiko nabarmen desberdintzen diren proposamenak.
6. Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena luzatuko dio kontratazio-organoari, 14. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideen arabera. Beharrezkotzat jotzen denean, mahaiak kontratua esleitzeko beharrezkoak diren txosten teknikoak lantzeko agindu dezake.

### 13. ARTIKULUA. KONTRATUA ESLEITZEA

1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratua proposamen abantailatsuenari edo proposamen ekonomiko abantailatsuenari esleitu ahal dio, esleipen-irizpideen arabera, edo lizitazioa esleitu gabe uztea erabaki dezake. Kontratazio-organoak, kasuan-kasuan txosten teknikoak egin eta gero, kontratua esleitzeko du, proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean. Epe horretan esleipenik egiten ez bada, enpresariak bere proposamena atzera botatzeko eskubidea du.
2. Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du kontratazio-organoak. Halaber, izangaiei edo lizitatzailerei jakinaraziko zaie eta kontratazio-organoaren Kontratatzaileren Profilean argitaratuko da. Bestalde, 151. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da lizitatzailerei eman beharreko informazioari dagokionez, nahiz eta informazioa bidaltzeko epea bost egun baliodunekoa den.

Dagokien espedientean artxibatuko dira aurkeztutako proposamenak, bai onartu direnak, bai ireki gabe atzera bota direnak bai ireki ondoren atzera bota direnak. Kontratua esleitu eta errekurtsioak aurkezteko epea amaitu eta gero, errekurtsorik aurkeztu ez bada, interesdunen esku geratuko da proposamenekin batera doan dokumentazioa.

Proposamenak ebaluatu eta gero, ordena beherakorrean sailkatuko dira aurkeztutako



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

proposamenak, betiere normalak ez direnak edo proportzioz kanpo daudenak izan ezik. Sailkapena egiteko, orrian adierazitako esleipen-irizpideak jarraituko dira.


Berdinketarik gertatzen bada, zozketa egingo da proposamenak aurkeztu dituztenen artean eta berdinketa gertatu den loteetan.

3. Kontratazio-organoak eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitzaileari hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpena jasotzen duenetik hasita, dokumentu hauek aurkezteko: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duten dokumentuak, lizitazio-iragarki guztiak ordaindu izana ziurtatzen dutenak, 64.2. artikulua arabera kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak atxikitze konpromisoa eta behin betiko bermea eratu izana ziurtatzen duen dokumentua, beherago adierazitakoaren arabera. Halaber, polizaren kopia eta kontratuaren xede diren espezialitate profesionalen ondoriozko arriskuengatik erantzukizun zibila estaltzeko prima ordaindu dela ziurtatzen duen dokumentua aurkeztuko dira. Era berean, esleipendunari bere nortasuna eta kontratatze gaitasuna ziurtatzeko eskatu ahal zaio.

**Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla ziurtatzeko**, dokumentu hauen originalak edo benetako kopiak aurkeztuko dira:

- Kasuan-kasuan eskumeneko organoek luzatutako ziurtapenak, APKaren 13., 14., 15. eta 16. artikuluetan aurreikusitako forman eta ondorioekin, indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzeko.
- Ekonomia Jardueren Zergan, kontratu honen xedeari dagokion epigrafean, inskribatuta dagoela ziurtatzen duen frogagiria. Kontratista ez bada Donostian edo Gipuzkoan bizi, matrikula Donostian aurkeztu beharko da, Estatuko gaikuntza badute izan ezik, eta dagokion alta aurkeztuko da, ordaindu izana justifikatzen duen agiriarekin batera bi kasuetan.

**Behin betiko bermea:** Esleipen-kantitatearen % 5koa (BEZa kanpo) utziko da gordailu gisa. Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategineko 96. artikuluan aurreikusitako moduetan osatuko da bermea. Banku-abal bidez egiten bada, Orri honen II. eranskineko eredia jarraituko da, eta obligaziodun nagusiarekiko solidarioa izango da; agindu, eskusio eta zatiketako onurei berariaz uko egingo zaie eta lehen errekerimendua egitean ordainduko da. Behin-behineko iraupena edukiko du abalak eta indarrean egongo da Erakundeak berau kitatzea erabaki bitartean.



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

Behin betiko bermeak estaliko ditu Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 100. artikuluan aipatutako kontzeptuak.

Bermea itzultzeko eta kitatzeko SPKLTBko 102. artikuluan eta horrekin bat datorren gainerako araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

4. Aipatutako epean dokumentazioa jasotzen ez bada, edo lizitatzailerak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen ez badu, bere proposamena atzera bota duela ulertuko da. Horrela bada, eskaintzen ordenaren arabera ondoren dagoen/dauden lizitatzaileri/ei eskatuko zaie dokumentazioa.
5. Kontratua Enpresa Elkarte bati esleituz gero, berori eskritura publikoan eratu izana egiaztatu beharko dute, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, eta elkarteari esleitutako IFZ eman beharko dute.
6. Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.

### 14. ARTIKULUA. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK


Kontratua esleitzeko proposamena aukeratzeko, honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan kontratazio-mahaiak:

1. Eskaintza ekonomikoa.....90 puntu
2. Hobekuntzak.....10 puntu

#### 1. Proposamen ekonomikoa (gehienez ere 90 puntu)

0 punturekin baloratuko da lizitazio motara egokitzen den proposamena, eta gainerako proposamenei puntu gehigarri bat emango zaie lizitazio motari dagokion puntuazioarekiko.





## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

Neurrigabetzat joko dira eskaintza ekonomikoak, baldin eta lizitazailea aurkezten den lote bakoitzaren lizitazioaren oinarriko aurrekontuarekiko % 10eko beherapena gainditzen bada . Kasu horretan, kontratazio-mahaiak eskaintza onartzeko edo atzera botatzeko txostena izapidetuko du.

2. Proposamen teknikoa (gehienez ere 10 puntu). Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- a) Luminariak aldatzea atarietan eta eskaileretan.....1 puntu.
- b) Garajeen hiru hilean behingo garbiketa mekanikoa.....4 puntu.
- c) Baldintza Teknikoen Orrian gutxiengoan artean barne hartu ez diren elementuen garbiketa .....5 puntu bat garbitu beharreko elementu berri bakoitzagatik.

### 15. ARTIKULUA. KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEKIZUNAK


Kontratuaren esleipena egin eta berau formalizatu aurretik, esleipendunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

#### Aseguruak:

- Polizaren kopia eta kontratuaren xede diren espezialitate profesionalen ondoriozko arriskuengatik **erantzukizun zibila** estaltzeko prima (300.000 €-ko zenbatekoagatik ) ordaindu dela ziurtatzen duen dokumentua.

### 16. ARTIKULUA. KONTRATUA FORMALIZATZEA

- 1 Esleipenaren jakinarazpen-agiria jasotzen denetik hamabost egun naturaleko epean emango da kontratua formalizatzeko agiria, eta kontratista esleipendunak nahi badu, eskritura publikoa egin



## **Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza**

daiteke. Kasu horretan, bere kontura izango dira kontratua formalizatzean eta eskritura publikoa egitean sortutako gastu, zerga, eta abar guztiak.

- 2 Enpresari esleipendunari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua formalizatu ezin bada, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratuaren suntsiarazpena aginduko du eta behin-behineko bermea konfiskatuko du, betiere eragindako kalte eta galeren kalte-ordainak jasotzeko egindako erreklamazioari kalterik egin gabe.


### **III. KONTRATUA GAUZATZEA**

#### **17. ARTIKULUA. KONTRATUAREN ARDURADUNA**

- 1 Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren zuzendari-gerentea izango da kontratuaren arduraduna eta bere ardura izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta itundutako prestazioa behar den bezala garatzen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta jarraibideak adieraztea.
- 2 Era berean, zuzendari-gerenteak eskumena du funtzio hori betetzeko beste norbait izendatzeko .
- 3 Kontratuaren arduradun bat izendatzeak eta dagozkion eskumenak garatzeak ez du esan nahi kontratistak kontratuaren xedea ondo gauzatzeko ardura ez duenik.

#### **18. ARTIKULUA. KONTRATUAREN IRAUPENA**

1. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren babes publikoko etxebizitzan eraikinak garbitzeko zerbitzuak urtebeteko iraupena edukiko du.



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza


2. Kontratuak irauten duen urtea amaitzean, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratua berritzeko borondatea adierazi dezake. Horrela bada, kontratua amaitu baino gutxienez hogeita hamar egun lehenago jakinarazi behar du. Kasu horretan, kontratistak kontratua luzatuko du, urtebeteko iraupena duten luzapenekin, eta gehienez ere hiru urte arte. Prezioari dagokionez, esleipendunak eskainitakoa autonomia-erkidegoko KPIk izandako portzentaje-aldaketarekin eguneratuko da, esleipendunak aldaketarik ez ezartzea eskaini duen kasuan izan ezik. Kasu horretan, eskainitako prezio bera mantenduko da.

### **19. ARTIKULUA. EPEAK BETETZEA ETA ATZERAPENAGATIKO ZIGORRAK**

- 1 Kontratistak kontratua gauzatzeko aurreikusi den epearen barruan bete behar du kontratua, kontratua gauzatzeko 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 1.artikuluan aurreikusitako epe partzialak bete behar ditu, halaber. Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzan eroriz gero, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak ez du alde aurreko errekerimendurik egingo.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua betetzeko epe partzialekiko edo osoarekiko atzeratzen bada, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratua suntsiarazi dezake, nahi badu. Kasu horretan, bermea galdu egingo da. Horretaz gain, kontratatzaileari eguneko zigorrak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: ehun euro kontratuaren xede diren txosten bakoitza atzeratzen den egun natural bakoitzagatik. Kontratua suntsiaraztea erabakitzen bada, entzunaldia egingo da kontratistarekin.

- 2 Berandutzagatiko zigorren zenbatekoa bermeetatik kenduko da, hala badagokio, APKLAOren 99. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 3 Txostenen bat hogeita hamar egun naturaletik gora atzeratzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke.



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

### 20. ARTIKULUA. KONTRATUA GAUZATZEA

1. Kontratatoren arriskuz eta menturaz gauzatuko da kontratua.
2. Kontratatik 20 eguneko epea edukiko du, kontratua formalizatzen denetik hasita, lan-programa bat aurkezteko, eta lan-programa horretan zehaztuko dira zerbitzuaren berrantolamendua, garbiketa-lanak egingo diren egunak eta orduak eta kontratua gauzatzeko erabiliko diren giza bitartekoak eta bitarteko teknikoak.


Aipatutako lan-programak Orri honetan zein kontratuaren Orri Teknikoan zehaztutako datak eta epeak errespetatuko ditu. Zentzu horretan, Erakundeak kontratua betetzeko beharrezkoak jotzen dituen aldaketak, zabaltzeak eta definizio-maila barne hartzeko eska dezake.

Kontratu-baldintzak aldatuz gero, kontratatik programa eguneratu egin beharko du.

3. Kontratua gauzatzeko kontuan hartuko dira Orri hau, Baldintza Teknikoen Orria, sinatutako kontratua eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratua interpretatzeko kontratatari ematen dizkion jarraibideak.
4. Kontratatik izango du egiten dituen lanen eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikieriek, akatsek, metodo desegokiak edo okerrekoak Erakundeari edo hirugarren batzuei eragin diezazkieten ondorioena edo ikuskapenen edo erabilitako materialen kalitate eskasarena ere.

Kontratatoren konturako langileek lokal, altzari, instalazio edo Erakundearen beste edozein jabetzatan zabarkeriagatik edo doloagatik kalterik eraginez gero, esleipendunak ordainduko ditu kalte-ordainak.

5. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak erabakiko du enpresa kontratatik egindako prestazioak kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako baldintzekin bat ote datozen, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio. Horretarako, beharrezkoak jotzen dituen neurri guztiak hartzeko eskatuko du, kontratua ondo gauzatuko dela ziurtatzeko. Kontratatik zentzuzko epe bat edukiko du adierazitakoa betetzeko.



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

6. Aurreko paragrafoan adierazitako arrazoi batengatik urratzeak irauten badu, Erakundeak kontratua suntsiarazteko erabakia har dezake, edo lan akastunen edo gaizki gauzatu diren lanen zuzenketak egiteko beharrezkoa den denbora zenbatu dezake, atzerapenengatik zigorren edo kalte-ordainen ondorioetarako.

Kasu horretan ezarriko den zigorra ehun eurokoa da, aurkeztutako lan-programaren arabera garbiketa-lanak gauzatzean atzeratutako egun natural bakoitzagatik.

7. Zigorrak ezarri eta ordaindu egin behar dira, kontratistari egotz dakioken arrazoi batengatik izandako atzerapenagatik Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kalte-ordainak jasotzeko duen eskubidea barne.

### **21. ARTIKULUA. PREZIOAK BERRIKUSTEA**


Prezioen berrikuspena berariaz baztertuta dago.

### **20. ARTIKULUA. KONTRATUKO ALDAKETAK**

Erakundeak kontratua alda dezake, interes publikoko arrazoiek eraginda, SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean, baldin eta horren ondorioz lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldarazten ez badira.

Halaber, interes publikoko arrazoen ondorioz aldatu ahal izango du kontratua, ondoren adierazitako baldintzak, eragina eta mugak kontuan hartuta, kasu hauetan:

- 1) Eraikin batzuen garbiketa-kontratuak amaitu eta ez luzatzeagatik, Erakundeak eraikin horien garbiketa kontratistari agindu behar badio, eraikin horiek kontratura sartzeko.
- 2) Gaur egun eraikita ez dauden baina kontratuak irauten duen denboran gauzatuko diren eta garbitu beharko diren beste eraikin batzuk kontratura sartzeko .



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

Bi kasuetan, Erakundeak ondoren gaineratuko dituen eraikinen garbiketa-lan horiei aplikatuko zaien prezioa, eskaintzan adierazitako gehienezko prezioa izango da.

Aldaketen ondorioz gehienez ere prezioaren % 20ko portzentajea eragingo da.

Aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

### **23. ARTIKULUA. KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA**


Ez da kontratuaren lagapenik egingo, ezta azpikontrataziorik ere.

### **24. ARTIKULUA. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK, GIZARTE BETEBEHARRAK ETA BETEBEHAR EKONOMIKOAK**

1. Kontratatik lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia bete behar du.
2. Kontratatik, esleipendunak edo bere langileek aipatutako betebeharrak urratzen badituzte, edo lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, laneko segurtasun eta osasunaren arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak urratzen badituzte, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak ez du erantzukizunik edukiko.

### **25. ARTIKULUA. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA**

1. Zerbitzuen kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 223. eta 308. artikuluetan adierazitakoak.
2. Edozein kasutan, kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira hauek:
  - a) Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratatzeko baldintzak bat-batean galtzea.




## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

- b) Kontratuaren xedearekin erlazionatuta dauden eta kontratua dela eta ezagutzen diren datuak edo aurrekariak, publikoak edo agerikoak ez direnak, isilpean gordetzeko betebeharra ez betetzea.
  - c) Kontratu honen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati lagatzea, edo azpikontratatzea.
  - d) Kontratuaren xede den zerbitzua arrazoi justifikaturik gabe uztea. Zerbitzua utzita dagoela ulertuko da, baldin eta ez bada dagokion erregularitasunez eskaintzen, edo kontratua normaltasunez gauzatzeko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak erabiltzen ez badira.
  - e) Orri honetan eta dagokion kontratuan jasotako erantzukizunak eta betebeharrak ez betetzea.
  - f) Kontratatik edo enpresek lan-arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzea.
3. Kontratua suntsiarazteko artikulua honetan aurreikusten den egoera baten aurrean Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratua suntsiaraztea erabakitzen badu, hura automatikoki suntsiaraziko da; nahikoa izango da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak enpresa kontratistari hartutako erabakiaren jakinarazpen fede emailea bidaltzea, Epaitegietara jo gabe, eta horrekin batera, zigor-klausula bat ezarriko da. Klausula horren ondorioz, galdu egingo dira eraturako bermeak, ebazpenaren ondorioz Erakundeari eragindako kalte eta galerengatik zegokiokeen kalte-ordaina kontuan hartu gabe. Kasu horretan, Erakundeak kontratuaren exekuzio subsidiarioa egitea erabaki dezake, berez edo izendatzen duen pertsonaren bitartez, eta kontratistaren kontura izango da.
- Beti ere, Kode Zibilaren 1.591 artikulua eta ezar daitekeen gainerako araudiaren ondorioz kontratistak duen erantzukizun orokorraren kalterik gabe.

## 26. ARTIKULUA. BERMEA ITZULTZEA


Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak kontratuaren likidazioa onartu ondoren, eta bermealdiko hamabi hilabeteak igaro ondoren, bermearen gainean gauzatzeko erantzukizunik ez



## **Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza**

badago, kontratistak utzitako bermea itzultzeko eskatuko du idatziz. Berme hori itzuli egingo zaio, baldin eta bermearen gainean gauzatzeko erantzukizunik ez badago.





## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

### I. ERANSKINA

#### BEHIN BETIKO ABAL EREDUA

.....erakundeak (kreditu-erakundearen izena),  
.....IFK eta jakinarazpenen ondorioetarako ..... k/Plaza/Hirib. ...., ... PK helbidea duenak ..., bere izenean eta ordeztan (ahalordekoen izena eta abizenak), ekintza honetarako ahalmen nahikoa du, ..... datako eskritura publikoen arabera (.....(e)ko ..... notarioak ziurtatua, ..... protokolo-zk. eta ..... (e)ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta) eta bere ahalmena gauzatzuz

#### **ABALA EMATEN DIO**

.....-ri (.....IFK/IFZ eta helbide soziala .....k/plaza/hirib.), Lehiaketa arautu zuen Baldintza Ekonomiko-Administratiboaren Orriko 15. artikuluan xedatutakoa betez, behin betiko berme gisa, **Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren babes publikoko etxebizitzaren eraikinak garbitzeko zerbitzuen** kontratua esleitu ondoren ondorioztatutako betebeharreri erantzuteko. Abala Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren aurrean egiten da, ..... EUROKO kopuruagatik (..... Euro)


Abal hori abal solidarioa izango da obligaziodun nagusiaren aurrean (adierazi esleipendunaren izena), eta berariaz egiten zaio uko Kode Zibileko 1830 eta ondorengo artikuluek eta horiekin bat datozenek aipatzen dituzten eskusio- eta zatiketa-onurei. Halaber, konpromisoa hartzen du Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren lehen errekerimenduan ordaintzeko.

Abal hau indarrean egongo da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak berariaz eteteko baimena eman bitartean.

**Donostia-San Sebastián, .....(e)ko .....-ren .....(a)**

**Sinadurak**

**Abal hau Abalen Erregistro Berezian inskribatu da data berean, ..... zenbakiarekin.**



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

### II. ERANSKINA

#### PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

.....jaunak/andreak, ..... nazionalitatea, ..... kaleko  
.....zk.an helbidea eta ..... datan luzatutako ..... NANA duenak, bere izenean edo  
..... enpresaren izenean (.....kalea, .....telefonoa, .....faxa eta  
.....IFK), honakoa


#### ADIERAZI DU

I. Ezagutzen duela **Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren babes publikoko etxebizitzaren eraikinak garbitzeko zerbitzuen** kontratuaren lizitazioaren iragarkia, badakiela prozedura ireki bidez egingo dela eta ezagutzen dituela Baldintzen Orriko baldintzak, betekizunak eta betebeharrak. Era berean, berariaz aitortzen du Baldintzen Orriko edukia ezagutzen duela eta osorik onartzen duela, eta konpromisoa hartzen du kontratua eskainitako baldintzetan gauzatzeko, ..... EUROKO aurrekontuarekin .....loteetarako.

Hau izango da lote bakoitzaren aurrekontuaren banakapena:

- 1. lotea ..... €, gehi BEZari dagokion .....
- 2. lotea ..... €, gehi BEZari dagokion.....
- 3. lotea ..... €, gehi BEZari dagokion .....
- 4. lotea ..... €, gehi BEZari dagokion .....
- 5. lotea ..... €, gehi BEZari dagokion .....
- 6. lotea ..... €, gehi BEZari dagokion .....
- 7. lotea ..... €, gehi BEZari dagokion .....

Lote baten esleipendun izanez gero, konpromiso hartzen dut, dagokion kontratu-aldaketaren bitartez, loteetan adierazi ez diren sustapen berriengatik edo eraikita egonik ere administraziorik ez duten etxebizitzengatik Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak dituen behar berriak direla eta kudeaketa-funtzioak egiteko, kontratuak irauten duen bitartean eta prezio hauengatik:



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

-..... €/ordua ekebizitza-komunitatearen garbiketa, gehi BEZari dagokion  
.....  
-..... €/ordua garaje garbiketa, gehi BEZari dagokion .....


Prezioen barruan daude kasuan-kasuan esleitutako lan guztiak, Orri honetan adierazitakoak, eta gauzatzean sor daitezkeen gastu guztiak, besteak beste: joan-etorrien gastuak, langileen gastuak, egin beharreko langileen subrogazioen ondoriozkoak barne, administrazio-gastuak, zergak, tasak eta aplikatzekoa den beste edozein gastu.

**II.** Ordezkatzen dudan enpresak betetzen dituela indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak ireki, instalatu eta funtzionatzeko, baita Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratatzeko ere.

**Donostia-San Sebastián, .....(e)ko .....-ren .....(a)**

**Sin: .....**

**NAN zk.a: .....**



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

### III. ERANSKINA

#### PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

#### ALDI BATERAKO ENPRESARIEN ELKARTEEN KASUAN

.....jaunak/andreak, ..... nazionalitatea, ..... kaleko  
.....zk.an helbidea eta ..... datan luzatutako ..... NANa duenak, bere izenean edo  
..... enpresaren izenean (.....kalea, .....telefonoa, .....faxa eta  
.....IFK)


.....jaunak/andreak, ..... nazionalitatea, ..... kaleko  
.....zk.an helbidea eta ..... datan luzatutako ..... NANa duenak, bere izenean edo  
..... enpresaren izenean (.....kalea, .....telefonoa, .....faxa eta  
.....IFK)

Konpromisoa hartu dute .....(bakoitzaren partaidetza zehaztu)  
partaidetzan Enpresarien Aldi Baterako Elkarte bat osatzeko. Zentzu horretan, .....  
jauna/andrea, ..... kalea ..... zk..... telefonoa eta ..... faxa  
dituena, izendatu da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren aurrean jarduteko ordezkari  
gisa, obren esleipendun suertatuz gero. Biak ala biak behar den bezala inskribatuta daude dagokien  
Merkataritza Erregistroan, bere IFKrekin batera. Horrenbestez, honakoa.

#### ADIERAZI DUTE

**I.** Ezagutzen dutela **Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren babes publikoko etxebizitzaren eraikinak garbitzeko zerbitzuen** kontratuaren lizitazioaren iragarkia, badakitela prozedura ireki bidez egingo dela eta ezagutzen dituztela Baldintzen Orriko baldintzak, betekizunak eta betebeharrak. Era berean, berariaz aitortzen du Baldintzen Orriko edukia ezagutzen dutela eta osorik onartzen duela, eta konpromisoa hartzen du kontratua eskainitako baldintzetan gauzatzeko, ..... EUROKO aurrekontuarekin ..... Loteetarako.

Hau izango da lote bakoitzaren aurrekontuaren banakapena:



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

- 1. lotea ..... €, gehi dagokion BEZaren .....
- 2. lotea ..... €, gehi dagokion BEZaren .....
- 3. lotea ..... €, gehi dagokion BEZaren .....
- 4. lotea ..... €, gehi dagokion BEZaren .....
- 5. lotea ..... €, gehi dagokion BEZaren .....
- 6. lotea ..... €, gehi dagokion BEZaren .....
- 7. lotea ..... €, gehi dagokion BEZaren .....

Lote baten esleipendun izanez gero, konpromiso hartzen dut, dagokion kontratu-aldaketaren bitartez, loteetan adierazi ez diren sustapen berriengatik edo eraikita egonik ere administraziorik ez duten etxebizitzengatik Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak dituen behar berriak direla eta kudeaketa-funtzioak egiteko, kontratuak irauten duen bitartean eta prezio hauengatik:

- ..... €/ordua etxebizitza-komunitatearen garbiketa, gehi dagokion BEZaren .....
- ..... €/ordua garaje garbiketa, gehi dagokion BEZaren .....


Prezioen barruan daude kasuan-kasuan esleitutako lan guztiak, Orri honetan adierazitakoak, eta gauzatzean sor daitezkeen gastu guztiak, besteak beste: joan-etorrien gastuak, langileen gastuak, egin beharreko langileen subrogazioen ondoriozkoak barne, administrazio-gastuak, zergak, tasak eta aplikatzekoa den beste edozein gastu.

**II.** Nik ordezkutzen dudan enpresak, jarduera hasteko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiko baldintzak eta betebeharrak betetzen ditu, bai eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoarekin kontratatzekoak ere.

**Donostia-San Sebastián, .....(e)ko .....-ren .....(a)**

**Sin:** .....


**Sin:** .....



**Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza**

NAN zk.a: .....

NAN zk.a: .....



## Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

### IV. ERANSKINA

#### JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA AUKERATZEA

..... jaunak/andreak, adin nagusia denak eta ..... NAN zk.a duenak, bere izenean edo ..... enpresen ordean, eta HAAJAPELren 59. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Udaletik aipatutako lizitazioarekin lotuta egin beharreko jakinarazpen oro, honako bitartekoa erabiliz egitea nahi dut:

<b>Fax-zk.a:</b>	.....
------------------	-------

Era berean, datu interesgarri hauek adierazi dira:

Harremanetarako telefonoak: .....

Helbide elektronikoa: .....


Posta helbidea: .....

(Enpresak) – Enpresen IFK: .....

(Pertsona fisikoak) – Lizitatuzailearen NANA: .....

*Oharra: Jakinarazpenak ahalik eta arinen egiteko, enpresa edo pertsona lizitatuzailearen faxari lehentasuna ematea gomendatzen dizuegu. Lizitatuzaileak faxa aukeratzen badu, jakinarazpenak fax bidez egingo dira.*

*Ez bada aukerarik egiten, posta ziurtatu bidez egingo dira jakinarazpenak, adierazitako helbidean. Hala ere, interesdunek jakinarazpenak faxez egiteaz gain, postaz beste jakinarazpen bat bidaltzeko eska dezake. Edozein kasutan, fax bidez egindako jakinarazpenak balioa izaten jarraituko du.*



**Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza**

..... (e)n, 2013ko .....-ren .....(e)an.

Sin.: